



I. ERANSKINA. ESKABIDEA

Kultura bizkortzaileei laguntzeko dirulaguntzen deialdia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2022-2023 ekitaldirako.

ERAKUNDE EDO PROFESIONAL ESKATZAILEAREN DATUAK

Izena edo sozietatearen izena					
IFZ/IFK					
Helbidea		Herria		P.K.:	
Harremanetarako pertsonaren datuak		Izena			
NANa		Tel.:		Helbide elektronikoa	
ETEaren/mikroenpresaren izena:					
Helbidea		Herria		P.K.:	
Webgunea					

Aurkezten du KULTURA BIZKORTZAILEEI LAGUNTZEKO 2022-2023rako DIRULAGUNTZA eskaera, bat etorritzaren (e)ko /2022 Foru Aginduaren bidez onetsitako oinarriekin (. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA, 2022ko aren (e)koa).

Kategoria:

- Profesionala (ekonomia jardueren gaineko zerga)
- Enpresa ertaina
- Enpresa txikia
- Mikroenpresa

Destinoa: BALIABIDEEN ETA GARAPEN ESTRATEGIKOAREN ATALA



Eta oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat:

1. Oinarrietan agindu bezala, agiri hauek aurkezten ditu behar bezala:

DOKUMENTAZIO OROKORRA:

Egoitza soziala eta fiskala Nafarroan dituela frogatzen duen dokumentua.

I.A eranskina Erantzukizunpeko adierazpena eskaera fasean.

II. eranskina. Memoria ekonomikoa.

III. eranskina. Memoria teknikoa.

VII. eranskina. Beharrezko sarbideak eta eskubideak emateko konpromisoa.

PROFESIONALENTZAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Langile Autonomoen Araubide Berezian 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen inskribatutako profesionalak direla egiaztatzen duen dokumentua.

Ekonomia jardueren gaineko zerga, kultura eta sormen industriren arloko profesional bat dela ziurtatzen duena.

ETE-ENTZAKO ETA MIKROENPRESENTZAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Legez 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen eratutako erakunde bat dela frogatzen duen agiria.

Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzen duena Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako ETE edo mikroenpresa bat dela, kultura eta sormen industriren arlokoa.

Adierazten dut dirulaguntza hauek eskatzen dituen erakundeak betetzen dituela Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 1. eranskinean ezarritako betekizun guztiak, honelakotzat hartzeko:

Enpresa ertaina ("250 langile baino gutxiago dituzten enpresak eta urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez dutenak, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenak").

Enpresa txikia ("50 langile baino gutxiago dituzten enpresak eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez dutenak").

Mikroenpresa ("10 langile baino gutxiago dituzten enpresak eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 2 milioi eurotik gorakoa ez dutenak").



2. Adierazten du ez duela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan **onuradun izateko ezarritako debekurik**, ezta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 18. artikuluan ezarritakorik ere.

3. Dirulaguntzaren xedeko proiektuari dagokionez, adierazten du:

Ez duela eskuratu ez eskatu inolako dirulaguntzarik administrazio honen, beste administrazio publikoen, ente publiko edo pribatuen edo partikularren aldetik, ez Espainian ez nazioartean.

Eskuratu/eskatu dituela administrazio honen, beste administrazio publiko batzuen, erakunde publiko edo pribatuen nahiz partikularren, Estatuko en edo nazioarteko en, dirulaguntza hauek:

Zein entitateri zaion laguntza eskatu	Eskatutako zenbatekoa	Dirulaguntzaren egoera (eskatua/onartua/ordaindua)

4. Datuak eguneratzeari dagokionez, aitortzen du konpromisoa hartzen duela Kultura eta Kirol Departamentuari **idatziz adierazteko**, 15 eguneko epean gehienez, aitorten honetan zehaztutako dirulaguntzen gainean izaten den edozein aldaketa.

5. Organo kudeatzaileari baimena ematen dio behar diren ziurtagiriak lortzeko Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaz, Nafarroako Zerga Ogasunetik eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik.

DATU EKONOMIKOAK:

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA (Gehienez, % 80, 100.000 € arte)	
ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA Eskatutako laguntzak ezin du gainditu onartutako aurrekontuaren % 80.	
AURREKONTUA, GUZTIRA	



DATU PERTSONALEN BABESA

Entitate eskatzaileak honako hauetan xedatutakoa beteko du datuei dagokienez: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa ([EUR-lex](#)); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa. (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Kultura eta Kirol Departamentuak honako arau hauen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa ([EUR-lex orrirako esteka](#)) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa. (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf). Erregelamendu horren 13. artikuluan xedatutakoa betez, hauxe jakinarazten da:

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	Kultura eta Kirol Departamentua. Navarrería kalea 39, 31001 Iruña. culturaydeporte@navarra.es
DATUEN BABESERAKO ORDEZKARIA	Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritza. dpd@navarra.es
TRATAMENDUAREN XEDEA	Deialdi hau kudeatzea.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	Ahal publikoak betetzean edota interes publikoko aferetan egin beharreko tratamendua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e artikulua), bat eginez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoarekin.
DATUEN JATORRIA	Identifikazio eta harremanetarako datuak, datu fiskalak eta lanekoak, finantza eta banku datuak, eta, kasua bada, datu akademikoak eta profesionalak, eskaeratik jasoko dira, eta, errekerimendua egin ondoan, baita beste edozein administrazioatik ere, batez ere Zerga Administrazioako Estatu Agentziaz, Nafarroako Zerga Ogasunetik eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik.
DATUAK GORDETZEKO EPEA	Datuak zein xedetarako bildu diren, halako xedea lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta xede horren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizun guztiak zehaztu ahal izateko ere. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da. Nolanahi ere, datuak gordetzen ahalko dira interes publikoko gaiak artxibatze, ikerketa zientifiko edo historikoetarako edota helburu estatistikoetarako.



DATUEN LAGAPENA	Ez da aurreikusten datuak hirugarrenei lagatzea, salbu eta araudiak baimentzen badu edo ukitutakoek adostasuna ematen badute.
ERABILTZEN AHAL DIREN ESKUBIDEAK	<p>Tratatzeko bildu diren datu pertsonalei dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko, eta noiznahi erabil dezakete eskubide hori. Horretarako, idatzizko eskaera egin behar zaio datuak tratatzeko arduradunari, arestian esandako helbidera, araudi indardunak ezarritako moduan.</p> <p>Eskubideak urratu zaizkiela uste dutenek erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan: https://www.aepd.es/.</p>

(e)n, 2022ko

aren

(e)(a)n

(Sinadura)

Izen-abizenak